


# Jaja Wachukuk ez zuen lo hartu



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**N**ew York, 1960. Nazio Batuen Erakundeko bilkura batean Nigeriako kanpo ministro eta NBEko enbaxadore Jaja Wachukuk lo hartu zuen. Nigeriak independentzia lortu berri zuen urriaren lehenean. Beraz, Wachuku NBEko Nigeriako lehen ordezkaria zen eta kargua hartu berri zuen.

Wachukuri saio hartan atera zioten argazkiarekin kontraesanean, *Time* aldizkariak hari buruzko artikulua argitaratu zuen, "Nigeriako NBEko enbaxadore dinamikoa" zela esanez. Haren estilo diplomatiko bizi, ausart eta gogotsua nabarmentzen zuen eta, halako politikariei esker, "independentzia lortu eta bi hilabete eskasera, Nigeria Afrikako indar nagusietakoa izateko bidean" zela zioen.

Jaja Wachuku (1918-1996) Ngwa herriko printzea zen, "Nigeria ekialdeko Igbo herriaren 20 belaunalditako buruzagien oinordekoa". Baina, zuzenbide ikasketak Dublineko Trinity Collegen egin eta Irlandako hiriburuan abokatu gisa jardun ondoren, 1947an Nigeriara itzuli zenean, behetik hasi zuen bere ibilbide politikoa. 1949an lortu zuen bere lehen kargua Ngwa herriko agintaritzaren kide gisa; 1953tik aurrera, aldiz, nazio mailako hainbat kargutarako aukeratuko zuten NIP alderdi independentistaren kide gisa.

Independentziaren aldeko mugimenduan urtetan jardun ondoren, bera izan zen Nigeriaren Independentziaren zeremonian Askatasun Gutuna jaso zuena bri-



Jaja Wachuku Nigeriako ordezkaria 1960ko NBEko bilkura batean lo, itxuraz.

tainiar ordezkarien eskutik. Eta ez zuen denborarik galdu: handik sei egunera, urriaren 7an Nigeriako bandera jaso zuen NBE, bere herrialdea erakundearen 99. kide gisa aldarrikatzen. Azaroaren 14an Nigeria UNESCOko 58. kidea izatea lortu zuen. Nazio Batuen Kontziliazio Batzordeko lehen kide afrikarra izateko ere aukeratu zuten, eta, besteak beste, Kongoko independentzia prozesuan bitartekari jardutea ekarri zion horrek. Nelson Mandelari eta Hegoafrikako beste ekintzaile batzuei ezarritako heriotza zigorra bertan behera zuteko negoziazio lanetan ere jardun zuen.

Hori guztia bat dator *Time* aldizkariak deskribatutako irudi dinamikoarekin, baina ez NBEko saio hartan egin zioten argazkiarekin. Izan ere, Jojo Wachuku ez zegoen lo; itxurak egiten ari zen.

Bilkuran ordezkarietako batek iruzkin arrazista egin omen zuen. Wachukuk iruzkin hark eragin zion atsekabea adierazi nahi izan zuen baina, hitza ukatuta, ez zioten horretarako aukerarik eman. Horregatik, mintzaldia entzuteari uko egin zion eta lo planta nabarmenak egin zituen -lekukoren baten arabera, zurrunga eta guzti-, protesta moduan. ●

THE AFRICAN HISTORY



R. MARSAC

## Burua eskuan ehortzitako emakumea

Puisserguier-eko (Okzitania) nekropoli batean duela 5.000 urteko emakume baten eskeletoa aurkitu zuten 2017an: burua moztuta zeukan eta kontu handiz bular parean jarrita, eskuin eskuaren gainean. Orain arrastoen azterketaren emaitzak argitaratu dituzte *Antiquity* aldizkarian eta gorpuari emandako tratu berezia azaltzen saiatu dira. Garbi

dute propio ehortzi zutela horrela eta hainbat testuinguru arkeologikotan dekapitazioa komunitatetik egozteko keinu sinbolikotzat jotzen den arren, kasu honetan alderantziz gertatu zela uste dute adituek: emakume garrantzitsua zela eta begirunea adierazteko ehortzi zutela oraingoz beste inon aurkitu ez den jarreran. ●